



## Eskolako Agenda 21 - Azpeitia

2005-2006 ikasturteko memoria

*“Hondakinak gutxitu kontsumoa murriztuz”*

- Iraurgi ikastetxea
- Azpeitiko ikastola Karmelo Etxegarai
- Urola ikastola



## SARRERA

ESKOLAKO AGENDA 21 ikastetxeak garapen iraunkorrerantz bideratzeko lan-tresna baliagarria da. Horretarako, derrigorrez hezkuntza-komunitateko eragile guztiak prozesu horretan sartu eta udal administrazioekin elkarlana egin behar dute. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioek, konpromiso sendoa hartua dute eta mantentzen dute garapen iraunkorrarekin lotutako programen zabalkundea eta aplikazioa bultzatzeko, bai hainbat materialen prestaketan, bai diru-laguntzen banaketaren bidez, eta baita, aholkularitza eta jarraipenean ere. Udal mailan hasitako bidea asko aberastu da ikastetxeetan garatzen ari den programa honekin.

Ildo honetatik, 2003-2004 ikasturtean, Azpeitiko zenbait ikastetxek martxan jarri zuten egitasmo hau energiaren gaia lantzeko. Hurrengo ikasturtean, 2004-2005ean, aukeratutako gaia hondakinena izan zen, eta aurtengo ikasturtean jorratu den gaia, berriz, kontsumoarena izan da, zehazki **“Hondakinak gutxitu kontsumoa murriztuz”** da proiektuaren izenburua. Hiru ikastetxek hartu dute parte: Karmelo Etxegarai Ikastolak, Urola Ikastolak eta Iraurgi ikastetxeak, eta haien helburua hausnarketa bat egitea izan da, beti ere, garapen iraunkorraren ikuspegitik.

Ohizkoa denez, prozesua garatzeko erabilitako metodologiak Eskolako Agenda 21ak dituen oinarrizko hiru osagaiak kontuan izan ditu: Ikastetxeko eta inguruko ingurumenaren kudeaketa iraunkorra, Curriculumaren berrikuntza, Komunitatearen parte-hartzea. Azken atal hau, komunitatearen parte-hartzea hain zuzen, INGURUGIRO ETXEA MUSEOko hezitzaileek zuzendu dute, partaide guztien koordinazio lanarekin.

## METODOLOGIA ETA HELBURU OROKORRAK

Ingurumen Hezkuntza arloko helburuak Agenda 21aren helburu orokorrekin lotu nahi izan dira, kontsumo iraunkorraren ardatz nagusiak landu ahal izateko. Iraunkortasuna lortzea denon lana denez, guztiok geure etxeetan bizimodua eta ohiturak pixka bat aldatzen baditugu, baliabide naturalak zainduko ditugu eta hondakin gutxiago sortuko. Hau guztia garatzeko, ikasle eta irakasleek lan asko egin dute, bai ikastetxean, bai ikastetxetik kanpo, eta hainbat irteera ere egin dituzte.

2005/2006 IKASTURTEAN Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartu duten ikastetxeak eta zikloak honako hauek izan dira:

- Iraurgi ikastetxeko LHko 2. eta 3. zikloak eta DBHko 1. zikloa
- Karmelo Etxegarai ikastolako 3. zikloa
- Urola Ikastolako DBHko lehen zikloa eta 2. zikloko 1. Maila

IKASTETXEA/ZIKLOA	LH2	LH3	DBH1	DBH2	DBH3
Iraurgi Ikastetxea	127	139	77	66	81
Karmelo Etxegarai Ikastola	110	97			
Urola Ikastola	/	/	66	63	54
<b>GUZTIRA ZIKLOKA</b>	<b>237</b>	<b>236</b>	<b>143</b>	<b>129</b>	<b>135</b>
<b>KOPURU OSOA</b>	<b>880 IKASLE</b>				

## **METODOLOGIA**

Eskolako Agenda 21ak, ingurumen hurbileko arazoak ezagutu eta ulertzea ahalbidetuko duen hezkuntza-praktika bat izan nahi du.

Proiektu honetan sartzeak, metodologia mailan, Curriculumaren berrikuntza dakar: ingurumen hezkuntza lantzea, parte-hartzeko metodoak bultzatzea, ikuspegi globaleko proiektuak aurrera eramatea, eta baita, ingurumenaren erabilera didaktikoa egitea ere (ibilaldiak, inkestak, elkarrizketa,...)

Metodologia ikasleen ezagutzetatik abiatzen da, informazio iturri desberdinak erabiltzen ditu, ikasleen arteko elkar komunikazioa, lana eta talde lan kooperatiboa sustatzen du, eztabaida ahalbidetzen du, eta baita ikasleen arteko harremanak gehitu eta indartu ere.

## **JARDUERAK ETA EKINTZAK**

Aurten Eskolako Agenda 21 proiektuaren barnean ziklo bakoitzak burututako ekintzak eta irteerak honako hauek dira:

### **LH 2. ZIKLOA:**

#### **Ekintzak:**

- **Txikleen arazoa**

Kontsumo ohituren esparruan, txikleen arazoan oinarrituko zen batik bat. Ikasleekin aztertu zen beraiek kontsumitzaileak diren ala ez, zer gertatzen den txikleak kontsumitu eta gero, hau da, nora eta zer modutan botazen dituzten. Horretarako, txiklez jositako leku batera joan zen, eta han, zinta baten bidez, metro karratu bat mugatu eta gero, umeek aurkitutako txikleak zenbatu zituzten, eta espatula baten laguntzarekin hauek kentzen saiatu ziren, garbitasun arazoak sortzen dituzten ala ez aztertu, eta kentzeko

sistematik dagoen ala ez ikertu. Arazoa aztertu eta gero, ikasleek beren aukerak proposatu zituzten eta konpromiso pertsonalak hartu.

- **Hamaiketakoaren azterketa**

Ekintza honetan ikasleek jolas-orduan kontsumitzen dituzten produktuak aztertu zituzten, hau da, zergatik diren era batekoak eta ez bestekoak, gela mailan desberdintasun asko dauden ala ez, nork erabaki eta aukeratzeko dituen (umeak berak, gurasoek), nork erosten, eta azkenik, produktu hauek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak baloratu zen.

**Irteerak:**

- **Bertako ekoizle baten enpresara bisita**

Bisita hau Azpeitian, Izarraitz mendiaren magalean dagoen Berastegi baserrira egin genuen. Bertan, gela bakoitzak ordu eta erdiko saioan, gaztaren ekoizpenaren prozesua ezagutzeko parada izan zuen.

- **Lapatx zabortegira bisitaldia**

Lapatx zabortegian zaborrak nola kudeatzen diren jakiteko aukera izan zuten ikasleek. Ordu eta erdi inguruko saioan, zaborrei buruzko bideo bat ikusi zuten, zabortegiari buruzko maketa bat aztertu eta oinezko ibilbidea egin. Ondoren, gelan ikasle bakoitzak bisitan ikusitakoari buruzko galdetegi bat bete zuen. Jasotako erantzunak talde handian aztertu ziren.

### **LH 3. ZIKLOA:**

**Ekintzak:**

- **Publizitatearen behaketa**

Ikasleek beren etxeetan jasotzen duten publizitatea ikastetxera eraman ondoren (aste batekoa edo gehiagokoa ) taldeka banatuta publizitate horren ikerlan bat egin zuten, eta lagungarri modura fitxa bat osatu zuten. Lana errazteko jarraibide batzuk eman zitzaizkien.

- **Erosketa- ohiturei buruzko galdeketa**

Galdeketa hau familiakoei zuzendutakoa izan zen. Ikasleei etxekoen artean inkesta bat egiteko esan zitzairen, eta ikasle bakoitzak, bere familia eremuan eman zitzaion fitxa bete zuen. Inkesta-erantzuleek erosketak egitean dituzten ohiturak aztertzea izan zen honen helburua.

- **Arropa kontsumoaren “boom” handia**

Hamabost pertsonari (55 edo 60 urtekoei: aiton-amonei, bizilagunei) garai hartako arroparen kontsumoari buruzko galderak egin zizkieten eta beste 15 ikaskideri beraien arroparen kontsumoari buruzkoak.

30 emaitzen konparaketa gelan azaldu behar izan zuten, eta egoera zenbat aldatu den ikusi zuten.

**Irteerak:**

- **Emaus Gizarte Fundazioa**

Ikasleak taldetan banatu ondoren (gehienez 25 lagun), aurkezpena egin zieten, hau da, beraien lan egiteko modua azaldu (badutela funtzio soziala, kaleko jendeari laguntza psikologikoa ematen diotela, lanean txertatzeko aukerak,...), ondoren denda ikusi zuten, eta ikasleek arropa sailkatzeko aukera ere izan zuten.

- **Sailkapen planta (Legazpi edo Urnieta)**

Bisitaldian, etxeko ontzi arinak material desberdinetan sailkatu ondoren, dagozkion birziklapen plantara eramaten direla ikusteko aukera izan zuten. Era berean, zaborra nola bota behar den, zer ez den bota behar edukiontzi horira, e.a. azaldu zieten. Bisitaldirako hezitzaile zerbitzua eta lan fitxak planteatu ziren.

**DBH- 1, 2 (LEHENENGO ZIKLOA)**

**Irteerak:**

- **Sailkapen planta (Legazpi edo Urnieta)**

Bisitaldian, etxeko ontzi arinak material desberdinetan sailkatu ondoren, dagozkion birziklapen plantara eramaten direla ikusteko aukera izan zuten. Era beran, zaborra nola bota behar den, zer ez den bota behar edukiontzi horira, e.a. azaldu zieten. Bisitaldirako hezitzaile zerbitzua eta lan fitxak planteatu ziren.

- **Emaus Gizarte Fundazioa**

Ikasleak taldetan banatu ondoren (gehienez 25 lagun), aurkezpena egin zieten, hau da, beraien lan egiteko modua azaldu (badutela funtzio soziala, kaleko jendeari laguntza psikologikoa ematen diotela, lanean txertatzeko aukerak,...), ondoren denda ikusi zuten, eta ikasleek arropa sailkatzeko aukera ere izan zuten.

**Ekintzak:**

- **Izugarrizko paper-piloa**

Etxean jasotako propaganda bildu eta aztertu egin zuten. Paper kopuruaren eta gure kontsumo – ohituren arteko erlazioak ezartzen ere saiatu ziren. Gero ikerketa bat egin zuten, fitxa baten bidez datuak jaso ondoren. Honekin batera galdeketa bat egin zieten beren sendikoei (kontsumitzaile bezala).

**DBH-3 (BIGARREN ZIKLOA)****Irteerak:**

DBH 2. Zikloko 3. mailakoak Intxaurrendoko Kontsumo gela bisitatzera joan ziren.

**Ekintzak:**

- **Izugarrizko paper-piloa**

Etxean jasotako propaganda bildu eta aztertu egin zuten. Paper kopuruaren eta gure kontsumo – ohituren arteko erlazioak ezartzen

ere saiatu ziren. Gero ikerketa bat egin zuten, fitxa baten bidez datuak jaso ondoren. Honekin batera galdeketa bat egin zieten bere sendikoei (kontsumitzaile bezala).

## **PARTAIDETZA**

Aukeratu den metodologian **ikasleen parte hartzeari lehentasuna** eman zaio. Eskaini diren tresnek, berriz, aurretik ikastetxean programaturiko ekintzak, buruturiko azterketak, lortutako emaitzak eta hobekuntza proposamenak kaleratzea erraztu dutelakoan gaude. Era berean, tresna hauek ikastetxean egindako lana kaleratzeko euskarri baliagarriak ere izan dira.

Komunikazio prozesurako bultzatutako tresnak:

- **Udal Foroa:** herriko arazoetan inplikatur, hobekuntza proposamenak aldarrikatzeko
- **Buletina:** gurasoei zein herritarrei informazioa banatzeko

Azkoitiko eta Azpeitiko Eskolako Agenda 21en parte hartu duten **ikastetxeen arteko koordinazioa** ere oso garrantzitsua izan da, eta prozesu osoan zehar beraien arteko **adostasuna** bultzatzen saiatu gara. Lan honetan Ingurugiro Etxea Museoko monitoreek eta Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak-eko hezitzaileek lan bateratua egin dute.





## UDAL-FOROA

### Helburuak:

- Ikasleak komunitate bateko partaide sentiaraztea eta tokiko administrazioarekin harremanak bultzatzea, Tokiko Agenda 21 egitasmoan aktiboki parte hartuz.
- Ikasleek "Hondakinak" gai nagusitzat hartuta, herriko ingurumen eta giza-diagnostikoak burutzea, hobekuntza-proposamenak egiten ohitzea eta udaletxean hauek aldarrikatzea.
- Talde-lana eta elkarlana bultzatzea.

### Edukia:

Bi foro egin dira: bata, eskolartekoa "Ingurugiro Etxea Museoan" 2006ko martxoaren 28an, eta bestea, Udalbatzaren aurrean apirilaren 6an.

### NORBERAK BETETZEKO KONPROMISOAK

1. Hamaiketako merkea, osasuntsua eta bilgarririk gabekoa ekarri: ogia, flauta, fruta, zerealak, gailetak, eta bilgarrien erabilpena gutxiagotzeko, "tapper"etan ekarri.
2. Telebistak eragina dauka zenbait hamaiketako aukeratzekoan, batzuetan kromoak eta oparitxoak eskaintzen dituztelako, baina produktu hauek bilgarri asko izaten dituzte. Beraz, horrelakoak gutxiago ekartzea proposatzen dugu.
3. Urtebetetzeetan gaileta kaxa ekarri gozoki zorroen orde.
4. Gelan sortzen den zaborra aprobetxa badaiteke aprobetxatu eskulanetan, musika tresnak egiten... eta bestela ondo sailkatu.
5. Txikleak jaten dugunean zakarrontzira paperean bilduta bota.

6. Zilarrezko paperaren ordeztukaldekkoa erabili, edo zilarrezkoa erabiltzen bada, ez bota, beste baterako gorde.
7. Ahal denean oihalezko poltsak erabili.
8. Behar duguna bakarrik erosi eta aurreko ikasturteko materiala aprobetxatu: margoak, koadernoak, motxilak...
9. Koadernoak, margoak... ez gastatu alferrik.
10. Liburu berriak erosi beharrean, bigarren eskukoak eskuratu edo trukaketa egin.
11. Bildukin gutxien dituzten gauzak erosi. Bilgarria izanez gero birziklatu.
12. Jostailuak eta beste gauzak ondo zaindu gehiago iraun dezaten eta puskatzen direnean konpondu edo birziklatu.
13. Zerrenda eginda joan erosketak egitera; erosterakoan egokia zer den ondo pentsatu, kanpoko itxurari eta modari bakarrik ez begiratu eta ahal bada bakoitzak bere poltsa eraman.
14. Erosketetarako poltsa aprobetxatu.
15. Erosi aurretik gauzen jatorriari begiratu.
16. Bidezko merkataritza erosi ahal den neurrian.
17. Ahal den guztia birziklatu eta berrerabili.
18. Oparitutakoak ondo gorde eta erabili.
19. Produktu kontzentratuak eta handiak erosi.
20. Freskagarriak botila handitan erosi, lata erosi beharrean.
21. Irteeretan hondakin gutxiago sortzeko, gure motxilan ondorengo hauek eraman:
  - Kantinplora urez beteta → laten ordeztukaldekkoa
  - Telazko esku-zapia → paperezkoen ordeztukaldekkoa
  - Fruta edo gailetak → gozoki zorroen ordeztukaldekkoa

- Eta sortzen ditugun hondakinak zakarrontzira bota edo bestela motxilan etxera ekarri.

22. Etxepekoekin bildu eta publizitatea ez jasotzea adostu.

23. Kontsumismoaren aurkako itsulapikoa egin, eta erosketak egiteko garaian produktua begiratu eta aztertu ondoren, merkea erostea erabakiz gero, horren aldea itsulapikoan gorde.

24. Garraio publikoa erabili.

Ikasleek herri mailan ikusi dituzten beharrei dagozkien proposamenak egin zizkieten Udal ordezkarierei ere. Proposamenak bi multzotan sailkatu ziren: alde batetik, "*Hondakinak gutxitu kontsumoa murriztuz*" aurtengo gaiarekin lotura zuzena dutenak; bestetik, Eskolako Agenda 21en orain arte landu diren bi gaiarekin lotura dutenak, hau da, bata "*energia*" eta bestea "*hondakinak*". Udalbatzan aurkeztu zituzten HERRI MAILAKO PROPOSAMENAK honako hauek izan ziren:

### **Kontsumoa / hondakinak**

1. Herritarrentzako kontzientziazio kanpainak egin kontsumoa murrizteko, berrerabiltzeko (arropak, jostailuak, liburuak) eta birziklatzeko, eta informazio hori zabaldu herriko komunikabideetan.
2. Publizitatea gutxitzeko kanpainak egin. Adb: buzoietarako "propagandarik ez" txartelak banatu nahi duten herritarrei.
3. Udal garbitzaileek zaborra birziklatu (papera eta kartoia) udaletxean, eskolan, kalean...
4. Udaletxean hondakinak sailkatu eta horien kudeaketa bideratu.
5. Udalak bere paper kontsumoaren azterketa egin, behar bezala aprobetxatzen den ikusteko.

6. Birziklatutako tonerrak, kartutxoak, papera... erabili Udaletxean eta herriko toki publikoetan eta bi aldeetatik idatzi. Herritarrei bidaltzen zaizkien oharrak sobretan sartu beharrean, oharraren paperarekin egin sobrea.
7. Paper birziklatua erabili herriko aldizkariak eta festetako programak egiteko.
8. Herriko dendek, hipermerkatuek... egin behar duten propaganda arautu: maiztasuna, kopurua, paper mota... eta paretetan eta kristaletan publizitaterik ez jarri.

### **Energia / hondakinak**

1. Kaleetan itsatsita dauden txikleak garbitu.
2. Kontenedore eta paperontzi gehiago ipini bai herrian eta bai baserri inguruetan, eta hauen kokapena berraztertu, esaterako, Jose Antonio Agirre plazan edukiontzi guztiak batera jartzea.
3. Eskoletako patioan eta jolas parkeetan birziklatzeko ontzi txikiak ipini (paperarena eta plastikoarena).
4. Baserritarren produktuak eta azokak indartu, baita herriko denda txikiak ere, eta horretarako laguntza eman, herritarrok supermerkatu handietara joan beharrean herrian bertan erosketak egiteko.
5. Bigarren eskuko azokak, herriko produktuak eta produktu ekologikoak bultzatu.
6. Festetan "erabili eta bota" produktuak ez erabili.
7. "Bidezko merkataritza"ko dendak leku egokietan jarri (jende asko dabilen lekuetan) eta urte osoan zabalik egon daitezen laguntza eman.
8. Olio eta sprayen kudeaketa bideratu eta olio biltzeko leku gehiago ipini eta biltzea sarriago egin.
9. Etxeetako zaborra eta enpresetako gai toxikoak ibaira botatzen dituenari isun gogorrak jarri.

10. Kanpoko igerilekuko zakarrontziak gainezka egoten dira. Sarriago hustea edota gehiago ipintzea proposatzen dugu.

11. Ura aurrezteko:

- Komunak berritzean, ura aurrezten dutenak ipini eta erabiltzaileari pegatina baten bidez adierazi (baita lehen ipinita daudenetan ere: igerilekuan, polikiroldegian...).
- Ikastolako iturrietan eta kalekoetan ur kopuru handia irteten da eta hau murrizteko zera proposatu nahi dugu: zapaldutakoan bakarrik atera dadila ura edo kopuru txikiagoan atera dadila.
- Iturri eta komun publikoak hondatzen direnean, lehenbailehen konpondu, ura alferrik gal ez dadin.
- Parkeetako urretagailuak kontrolatu, euria egiten duenean ez direlako beharrezkoak.

12. Bidegorriak ipini.

13. Bizikletentzako aparkalekuak jarri Iraurgi ikastetxean.

14. Jendea oinez ibiltzera bultzatu (txangoak, ikastolara...) eta garraio publiko zerbitzua hobetu. Landetara joateko garraio publikoa bultzatu.

15. Ibilgailuak bidetik ibil daitezela; horretarako, mendiko bideak itxi autoak ez pasatzeko.

16. Eguzki plaka gehiago ipini.

17. Errege egunaren ondoren, Gabon argiak itzali.

18. Txakurren hondakinak jasotzeko poteak ipini eta jabeak ez badu hau errespetatzen, isuna jarri.

19. Askok ez dakigu non dauden eta zertarako diren "Kontsumo bulegoak". Informazio zabalagoa eman, erreklamazioa egiteko orduan nora joan eta zer egin behar den jakiteko.

**Prozedura:**

Bilera baten bidez, ikastetxeei foroa burutzeko jarraitu beharreko prozedura eta informazio guztia eman zitzaien eta foro honi begira, ikastetxe bakoitzean antzemandako arazoan azterketa antolatu. Herriko ikastetxeen arteko koordinazioa bermatu da bileren bidez.

Hurrengo bilera batean azterketen emaitzak jaso, fororako ikastetxe bakoitzeko ikasle-ordezkaritza izendatu eta parte-hartzeko modua azaldu eta aldarrikapenak landu dugu. Hurrengo pausua, Udaletxean ikasleek utzi beharreko idatzizko txostena prestatzea izan zen.

Prozesu honen funtsezko xedea, Udalak Foroan egindako aldarrikapenei aurre egitea eta erantzutea da, bai gauzatuko direnak eta bai egingo ez direnen zergatiak azalduz (oraingoz ez da erantzunik jaso).



## BULETINA

### Helburuak:

- Gurasoak, ikasleek egindako lanaren xehetasunak ezagutzea.
- Ikastalde bakoitzak, beste ikastetxeetakoek egindakoaren berri izatea.
- Idatziak eta argazkiak erabiliz euskarri erakargarri bat sortzea.
- Herri mailan ikasturtean Eskolako Agenda 21en barnean landu den proiektuaren berri ematea.

### Edukia:

Buletinari aldizkari itxura eman zaio, eta 8 orrialdetan, hizkuntza bakarrean, hiru ikastetxeetan aurrera jarraitu den prozesuari buruzko informazio guztia azaldu da. Bertan, Azpeitiko Eskolako Agenda 21aren aurkezpena (helburuak, partaideak...), Udal foroa eta ikastetxe bakoitzak burututako ekintza plana adierazten da, prozesuan zehar ateratako argazkiak eta ikasleek sortutako materialaren irudiak informazioaren lagungarri izanik (Ikus Eranskinak).

### Prozedura:

Buletina egitearen ardura ARTELATZ enpresak hartu zuen bere gain, beti ere Udal ordezkarien lankidetzarekin.

Ikastetxe bakoitzean, Eskolako Agenda 21eko arduradunarekin bilera batean, beraien ekintza zehatzen informazioa jaso genuen, ekintza hauen tenporalizazioa ezagutuz, jardueren arabera, argazki desberdinak ateratzeko

Hurrengo urratsa, lortutako informazio eta material guztiarekin buletinaren behin behineko aurkibidea egituratzea izan da, eta horrela, buletinaren lehen bozetoa diseinatu. Bertan ikasleen parte hartzea ahalik eta handiena izatearen apustua egitea beharrezkoa da (adibidez, Udal Foroaren berri emateko atalean).

Lehen bozetoa ikastetxeetako partaideen esku utzi ondoren, beste bilera orokor batean moldaketak eta ekarpenak jaso ziren, azken zuzenketak egin eta buletina inprentara bidaltzeko. Herri bakoitzeko postontzi guztietan uzteko erabakia hartu zen.

**ERANSKINAK:**

1. Lan fitxak
2. Kontsumo tailerrei buruzko memoria